

DONOSTIA / Liburutegien ondorengoak

MEDIATEKA. Herrerako ikastetxean, hiriko hainbat eskoletan bezala jarri berriak dira mediatekak; liburuez gain, Interneta ere ikasleen eskura dago

Maidier Azurmendi

Herrerako ikastetxean mediateka berria duela aste batzuk inauguratu zuten, eta eskolako haurrak dagoeneko gune berriaz gozaten ari dira.

Mediateka honetan, liburutegi zabalaz gain ordenagailuak ere badituzte, eta nola ez, hauetan lekua harrapatzeko lehian ibiltzen dira haurrak. Tresna baliagarria izatea dute helburu gune hauek, eta Herrerako ikastetxeaz gain, Zuhaitzi, Catalina Erauso, San Jose de Calasanz, Intxaurren, Arantzazuko Ama eta Jakintzak ere badute dagoeneko.

Ikastetxeko lanak egiteko behar guztiak eskura dituzte haurrek, eta Pili Salinas zuzendariak esan bezala, asko dira jangela garaian edota klaseak bukatzean lanak bertan egiten geratzen direnak. Ikasteko gune aproposa da eta zuzendariaren esanetan, txikitatik liburutegi en erabilera ikasteko lehen esperientzia da ikastetxeko txikiarentzat.

Eskolako orduetan, astean behin, bertara joan eta irakasleak proposatutako ekintzak egin ohi dituzte. Txikiarentzat ipuinaren ordua ere izaten da, eta andereñoak ipuinen alegiazko abenturetan murgiltzen adi-adi izaten ditu haurrak, irudimen kimuak airetzen.

Gune hauek sortzea positiboa da Pili Salinas ikastetxeko zuzendariarentzat: Hurrei liburuak gerturatzea ahalbidetzen digu, eta baita Interneten erabilera ere.

Mediatekak gune ezagunak dira haur donostiarrentzat. Atzean geratu da ikastetxeetako liburutegi zaharretan fitxen bidez liburu preziatuaren bila ibili beharreko garaia. Orain teknologia berriak gogor sartu dira. Liburutegiko beste tresna bat dira, baina nekez lortuko dute liburuetako istorioei itzal egitea.